


MUGARRI FESTA GAUR

Hernaniko mugetan barrena ibiliko dira haur eta helduak

Haurrak Errekaldetik Mandazubira joango dira, helduak, berriz, Antxistatik Olazarrera.



1992ko mugarri festan, koadrila kontzentratuta datuak hartzen.

Hernanik 42 kilometro karratu ditu eta zazpi herriekin egiten du muga: Donostia, Lasarte-Oria, Urnieta, Elduain, Arano, Errenteria eta Astigarraga. Ohitura zaharra da urteko egun batean Hernaniko mugarriak bisitatzea. Aspaldiko urteetan galdutako ohitura 1990ean berreskuratu zuten Mendiriz Mendik bultzata, eta orduz gero urtero errepikatzen da.

HISTORIA LUZEA

1542ko abenduaren 12an Espainiako Karlos I erregeak Hernaniko herriaren ordenantza berriak sinatu zituen Valladoliden. Agiriak dio zinegotziek kargua hartu eta sei

egun baino lehen Hernanik inguruko herriekin dituen muga eta mugarriak bisitatu behar dituztela; egin ezean isuna jarriko zaiela ere bai.

Mugarri ikustea San Migel eguna (irailak 29) pasata egiten zen. Egun horretan zerranda bat osatzen zen falta ziren edo hondatuta zeuden mugarriena, eta 1702ko ordenantza batek dioen bezala "Aindi mendiko (gaurko Onddi) harri gorriekin" egin behar ziren berriak.

AURTEN 90 GAZTE INGURU

Azken hiruzpalau urteetan, ez du jende gehiegi mugitu mugarri festak. Aurten gazteak behintzat asko izango dira,

ikastoletan egindako propaganda medio. 90 umetik gora gaitzeko 8:30etan hartuko ditu autobusak anbulategi zaharrean (oraingo DYA eta Ongintza dauden tokian), eta handik Errekaldera eramango ditu, Mandazubirako ibilia hasi dezaten. Heduak *todoterreno-etan* igoko dira Antxistara, gero oinez Olazarra joateko.

Umeez proba bat ere izango dute, gainera: mapa bana emango zaie, eta bertan mugarri guztiak agertuko dira. Mugarri bakoitzean, bestalde, pegatina bat egongo da mapari erantsi beharrekoa. Pegatina guztiak osatzen dituenari oparitxo bat emango zaio ibilia bukatzean. □

ONGINTZA PATRONATUA

Drogomenpekotasunari aurre egiteko topaketak hasiko ditu

Datorren astelehenetik aurrera, berriz, "Prebentzioa eta Familia" tailerrari ekingo dio, Biterin.

Ongintzako Prebentzio Zerbitzuak 10 urte daramatza drogomenpekotasunari aurre hartzeko programak egiten. Guztiak helburu bera izan dute: gurasoei bitartekoak eman, familiaren prebentzio lanak betetzeko Programetan gai asko landu izan da: eskola porrotari nola aurrea hartu, sexualitatea, komunikazioa, hiesa...

Prebentzio Zerbitzuak aurtengo programa ere osatua du: gurasoen arteko Topaketak antolatuko dituzte. Helburu zehatza, honako hau: drogomenpekotasunari aurre egiteko

familian aitzak eta amak duten eginkizuna aztertzea. Topaketok azaroan hasiko dira. Ikastoletan egiten direnak, ostera, urtarrilean eta martxoan egingo ditu Ongintzak.

TAILERRAK BITERIN

Topaketa horietaz gain, astelehenero *Prebentzioa eta familia* izeneko tailerrak hasiko ditu Prebentzio Zerbitzuak. Familiako komunikazioa hobetu, prebentzio eta heziketa proposamenak... Biterin, datorren astelehenetik aurrera 14:45-16:15. ☎ 943-557854. □

■ ERRUGBIA

Urumea eta Langile txapelak atzo Landaren

Hernaniko ikastetxeen arteko txapelketa zen atzokoa.



Urumea eta Langileko neskek. 50 mutil eta 20 neska elkartu ziren atzo.

HERNANIKO lau ikastetxeetako neska mutiko infantilek errugbi arratsaldea izan zuten atzokoa. Nesketan Urumea-koek irabazi zioten Langileri

eta mutiletan:

- Garaile: Langile B
- 2. Langile A
- 3. Elizatxo-Inmakulada
- 4. Urumea. □

IRAGARKI MERKEAK

Neska behar da arratsaldetan haur bat zaintzeko. Gauzez deitu ☎ 943-551092



URUMEA AUTOAK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA

Akarregi auzoa 25
☎ 943 33 22 74
20120 HERNANI

Goizez eta arratsaldez.
haurrak eta helduak

Ikastaroak

Roiznahi hasteko aukera.

AURKI

Eskulanak/Arte Ederrak


Tlf.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI



Eskulanak egiten
irakasten dugu.

► Gurutze puntua ► Bainika
► Erdi puntua ► Enkage-Zirizko
► Gakoratz lanak lanak

HAIZEA
Kortsetegia - Mihsidenda
Telf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2, HERNANI




OKINDEGIA
ANTZIOLA

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

MIEL EZPELETA PELOTARIARI OMENALDIA

“Pozik haundiena Hernanik Herriarteko txapela irabazi zuenean hartu nuen”

“Botatzen duten arte” gazteekin lanean segitzeko asmoa du Ezpeletak.



Ezpeleta frontoian izaten da askotan. Ez dago erretiratzeko!

PELOTA Elkarteak antolatuta, Miel Ezpeletari omenaldia egingo diote gaur. Atano III eta Ogetaren garaikoa da Galarretako atzelaria. “Orduan, orain baino ere jende gehiago ibiltzen zen pelotan” kontatzen du. “Tilosetan nagusiak bakarrik izaten ziren, baina, eliz paretean, askotan tokirik izaten ez zela”.

Castillo, Ibargarai, Balda, Idiakez... ziren orduan Gipuzkoako afizionatu onenak; hernaniarretan, berriz, Daniel Karrera eta Leandro Lujanbio. “Leandrok zazpiterditik zazpiterdira jotzen zuen gero, eh, orduko pelotekin!”. Gauzak asko aldatu omen dira ordutik.

JOKATU GUTXIAGO

Ezpeletak esaten du gaurko pelotariak, orokorrean, gutxiago jokatzen dutela. “Titinek eta besteren batek, bai, noski”; baina, materiala asko aldatu da, “bizitu, eta pelotariak ez dute lehengo jokorik eta jo hura ere ez”. Mielen ustez, Beloki orain 40 ez zen gaur adina izango”. Herrian bertan ere, orduan, *pelotari* ez zen askok jotzen omen zuen pelota gogorra, eta orain, berriz, pelotariak bakarrik.

PELOTA ESKOLA

Materiarelean ez ezik pelotan ikasteko eran aldatu da gauza asko, lehendik honera. “Guk 25

MIEL EZPELETA

- 1934 an jaioa, Galarretan.
- Aitarengandik datorkio pelotarako afizioa.
- Txirri frontoian ikasia.
- Afizionatu mailan jokatu izan du eta txapelketa batzuk irabazia da.
- Atzealaria. Segurua.
- Anoetan 12 minutuko tantoa jokatua da.
- 28 urterekin jarri zituen takoak aurrenengoz.
- Orain 9 urte hasi zen Azurmendi gazteekin laguntzen
- Oiaga, Erroizena, Alvarez... bere eskutatik paseak dira.
- Herriarteko finaleko infantilen pelota bere eskutan bigunduta iritsi zen saskira.

urte behar genituen pelotan ikasteko. Orain, eskolak daude, eta 17rekin badakite guk 25ekin genekiena.

“TXAPELA” HERRIAN

“Hernanin badago harrobia, baina, horri eutsi egin behar zaio” Horretarako “txapela behar da, txapela” esaten du. “Herrian behar da (estalitako) frontoia libre sartzeko. Mielek Tilosetakoari “txapela” jartzeko eskatzen du.

Omenaldia 22:00etan hasiko da. Lehen partiduan, Muguruza eta Oregi I Huizi eta Bazetaren kontra. Bigarrenean, Esnal eta Fuertes Oiaga eta Mendia-ren kontra. □

Osiñagako auzotarrek bilera dute bihar 12:00etan

OSIÑAGAKO auzo elkarteak antolatuta bihar eguerdiko 12:00etan bilera izango da Harriatsu eskolan. Aztertzeko dauden gaiak: Olazagirre SA zerratokiaren inguruko azken berriak; auzoko arazoei buruz udalak emandako erantzunak ere azalduko dira; eta azkenik udazkeneko egitarauaren berri emango da. Beste edozein gai aterako balitz ere eztabaidatuko da. □

Boleibolekoek gaur hasiko dute denboraldia

UPV Hernanik eta jubenilek Kiroldegian jokatuko dute.

JUBENIL mailako mutilek 16:30etan jokatuko dute kiroldegian Sestaoko taldearen kontra. Aurtego helburua esperientzia hartzea du Eusebio Lizarazuk gidatzen duen taldeak. Ondoren, UPV Hernanik jokatuko du Galdakaoren kontra. Alfred Cerdánen taldeak fitxaketa berriak egin ditu aurren eta

mailaz igotzea izango du helburua, zalantzarik gabe.

Gainerako taldeek ez dute denboraldia oraindik hasi. Nesketan kadete mailako talde bat eta infantiletako bi osatu dira. Mutiletan, ordea, oraindik jendea falta da kadeteen taldea osatzeko. 85-86 eta 87 urteetan jaioak kiroldegitik pasa, kirol hau probatu nahi baduzue. □

HITZ BITAN



Txema kamareroa, Elkano tabernan gorri bat serbitzen.

✓ MUSA

Gaur mus txapelketa azkarra Elkano tabernan. Duela hiru astez honunza bezala, mus txapelketa azkarra jokatuko da Elkano tabernan arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

✓ GALINDO

Rodriguez Galindo Jeneralaren indulto eske gutun bat iritsi da Hernaniko Udalera. Lera Benavides-en izenean, (bere burua PPko jarraitzailezat jotzen du) udaltzeko gobernu batzordeak Galindoren indultuaren aldeko mozioren bat atera dezala eskatzen du gutunak. “Espainiako herritar asko Galindori esker dago bizirik, eta zorretan berarekin”. Udalari firma bilketa egiteko mahaia jartzeko baimena emateko eskatzen dio.

✓ FUTBOLA

Zamudion 17:00etan jokatuko du gaur 3.mailako taldeak. Hernaniarrak denboraldiko lehen garaipenaren bila joango dira Bizkaia. Hernaniarrek puntu beharra dute sailkapenaren azken postuetatik ateratzeko, eta horretara joango dira.

✓ ‘AURRERA’ ELKARTEA

Gaur Urnietako festetara joango dira Aurrera elkartekoak. Urnietan festak hasi dira eta zer giro dagoen ikusteko aukera izango dute. □

AGENDA	ERAKUSKETAK Hernaniko Udalaletxea: <i>mende bat zutik.</i> Udaletxean bertan, 18:00-20:00	Juan Ramon Perez Oreretarraren Kuadroak Txema tabernan.
---------------	---	--

ZERBITZUAK	
TELEFONOAK ☎ Taxiak: 943 550093 ☎ Udaltzaingoa: 943 333288 ☎ DYA: 943 464622 ☎ Autobusak: 943 556662 ☎ Anbulatorioa: 943 557750	FARMAZIAK ☎ Egunez: Chucla Kardaberaz, 49 ☎ 943 551793 ☎ Gauez: Correa Antziola, 44 ☎ 943 551993

OIALUME BILTOKIA.

Urritik ekainera igande eta jai egun guztietan zabalik.

Bihar denboraldi hasieran

LAIOTZ

OIALUME AUZOA HERNANI